

# E<sub>H</sub>KEA plataforma

**E.H.K.A.P.**  
Euskal Herriko Kutsadura  
Elektromagnetikoaren Aurkako  
Plataforma

**P.E.H.C.C.E.**  
Plataforma de Euskal Herria  
Contra La Contaminación  
Electromagnética



**[ehkeap@gmail.com](mailto:ehkeap@gmail.com)**

**<http://ehkeap.blogspot.com>**

# E<sub>H</sub>KEA plataforma

---

**E.H.K.E.A.P.**

**EUSKAL HERRIKO KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOAREN AURKAKO PLATAFORMA.**

<http://ehkeap.blogspot.com/> [ehkeap@gmail.com](mailto:ehkeap@gmail.com) TEL(Contestador) 945 26 81 43

## AURKEZPENA

Atzo, ekainak 24, ospatu genuen Kutsadura Elektromagnetikorik gabeko Ingurugiroaren mundu mailako eguna. Oraindik ere entzun dezakegu eskakizunen oihartzuna, bereziki botere publikoei eskatzen zitzaien gaiarekiko informazioa eta kontzientzia.

Esker onez hartzen dugu Legebiltzarreko Lan Talde honetara etorri eta Kutsadura Elektromagnetikoaz dugun ikuspuntua aurrean jartzeko egin diguzuen gonbitea. Hori da gu hemen egoteko arrazoia.

Euskal Herriko Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako Plataforma, zeinen izenean gatozen gaur, elkargune bat da. Bertan biltzen garen elkarrekin auzolan batean dihardugu egiazko informazioa bildu eta banatuz, gizartearen kontzientzia esnatzeko eta Kutsadura Elektromagnetikoaren hedakuntza salatzeko.

Gure Plataformako kide den Ekologistak Martxan mugimenduaren aldarrikapenekin bat egiten dugu.

Hemen mahai honetan dugu Pedro Belmonte Espejo jauna Estaduko Ekologistak Ekintzan taldearen ordezkari. Berak azalduko digu elkarrekin aurrera daramatzagun ekintza horien esanahia.

Euskal Herriko Plataforma hau osatzen dugunok ez jendearen aurrean ez gure baitan ez dugu gure burua Injineritzan, edo Fisikan, edo Kimikan, edo Biokimikan edo Medikuntzan aditutzat jotzen. Ikerkuntzan ari diren adituen ahotsa ezagutzen saiatzen gara, haien lanetara seriotasunez hurbilduz beren edo beste aditu batzuen laguntzarekin.

Europar ikertzaile asko dira intelektualak eta zientzilariak legez konpromiso handiko Talde Adierazpenak egindakoak. Haien azpimarratzen dituzten arazoak guk bildu eta gizarteratu besterik ez dugu egiten (Jaun -andere horiek kontsulta dezakezue 2007ko iraileko "Bioinitiative Report" Informea zeina informazio iturri izan duen Europako Parlamentuak. (<http://www.bioinitiative.org/report/index.htm>) Eta gainera:

1. Kataniako Erabakia, 2002ko irailekoa, 21 ikertzailek sinatua;

2. Alcalako Adierazpena, 2002ko maiatzekoa, ehun ikertzaile, katedradun, biologian aditu, eta medikuk sinatua.
- 3- Friburgoko Adierazpena, agertutako sintoma berriei buruz, 2003ko urriaren 9koa eta 22 osagilek sinatua.
- 4- Beneventoko Erabakia, 2006ko irailekoa, 30 ikertzailek sinatua eta
5. Londoneko Erabakia, 2007ko azaroaren 27koa ospe handiko 10 ikertzailek sinatua.

Giro honekin harremana duen zientzia gizon bat aurkezten dugu hemen, Emili Mayayo Artal, Zaragozako Unibertsitatean Lizentziaduna, eta Barzelonako Unibertsitatean Doktoretza egina. Anatomia Patologikoan espezialista Valentziako Unibertsitatean. Patologoa halaber Tarragonako Joan XXIII. Hospitale Unibertsitarioan, eta Irakasle titularra Medikuntzan Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatean. "Revista Española de Patología"ren Zuzendaria da. Aldizkari hau " Sociedad Española de Anatomía Patológica" eta " Sociedad Española de Citología" elkarten organoa. "Club de Patologías Infecciosas de la Sociedad Española de Anatomía Patológica"ren koordinatzailea da. 300 lan argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan. Bere ikerketen artean estudio garrantzitsuak daude uhin elektromagnetikoen osasunean duten eraginari buruz.

Bada hala ere Eremu Elektromagnetikoen gure osasunean izan dezaketen eraginari buruz kontraesanik zientzialarien artean. Eta kontraesan hauek segurantza falta sortzen dute zientzia mailan. Eta gizartean kezka zugarria.

Gure osasuna jokoan den kasuan, gizartea zihurtasun faltaz jabetzen denean, zilegi eta mesedegarria da kezka. Hori ulertzeko aski da zientzialarien artean ageri den kontraesana seriozki hartzea, beste esplikazio psikologiko edo soziologikoetara jo gabe. Pentsamendu magikoak ezin du esplikatu zientzialarien arteko desadostasuna.

-Pentsamendu magikoak eragin al ditu Europako Parlamentuaren Erabakiak?

-Edo 2008ko irailaren 4koa edo- 2009ko apirilaren 2koa?

-Pentsamendu magikoa edo kutsadura honen aurka aritzen diren taldeen zalapartak al dira Europako Parlamentuaren Erabakiaren oinarri? Gogora dezagun Erabakiak ia aho batez hartuak izan zirela nola Komisioan hala Osoko Bilkuran. A, eta Legebiltzar honetako talde politikoen ordezkariak baiezko botoa eman zuten. Ez ahaztu.

-Iraingarriak eta arriskutsuak izango lirateke baiezpen horiek.

Europar gai honetan pentsamendu magikoari buruzko eztabaidarik ez dago; bai, ordea, Eremu Elektromagnetikoen gure osasunean duten eraginari buruz. Eta eztabaida hau ikerketa askotan oinarritzen da, ez pentsamendu inkontziente batean.

Anbiguitasuna da pentsamendu magikoak darabilen osagaietako bat. Horri eskerrak gauzak adierazterakoan aztiak beti du arrazoi. Ausartegia dirudi Zuhurtziaren Printzipioa printzipio ez baino ateraldi bat dela esatea, baiezpen hori anbiguitasunez erabiltzen bada.

Ezin dugu ozenki aldarrikatu gabe utzi Zuhurtziaren Printzipioa ozen eta hitzez hitz datorrela Europako Konstituzioaren 174. artikuluan, 2 atalean eta hortxe jarraitzen duela Lisboako Ituna onartuta gero ere. Gainera Europako Justizia Epaitegiak behin baino gehiagotan erabili du aipatu printzipioa eta juridikoki erabiltzeko bideak haren jurisprudenzian daude. Jaun-andere horiei banatu zaizkizuen agirietan ikus dezakezue.

Gure jardueraren seriotasunak gogotan hartzen du zenbait aldiz gizartean sortzen den kezka hori hiritarren interesen aurkakoa izan daitekeela. ( Adibidez :CEM emititzaileen inguruko eraikinen balio galtzea).Eta zuhurtziaz jokatu dugu. Edonola ere,ia ezinezkoa da gai honen inguruan egiazko informezioa ematea, nola edo halako kezka soziala sortu gabe.

Jaun-andere horiek, gu ez gara bazter-nahasle batzuk..Erantzunkizunez erabiltzen dugu adierazpen eta informazio askatasuna, hiritarren kontzientzia esnatu asmoz. Hori da gure jokabidea.

Eman diguzuen arreta eskertuz, hitza Emili Mayayo Artal Doktoreak du. Gure Plataformaren asesore diren hainbat eta hainbat ikertzaileren ordeztatze bera eta gaur hemen esango duena garrantzitsutzat jotzen dugu.

Gauza bera esango dugu Plataformaren izenean Ekologismoa Ekintzan mogimentuari buruz.Ondoren hitz egingo duen Pedro Belmonte Espejo jauna haien izenean dator.

**EUSKAL HERRIKO KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOAREN  
AURKAKO PLATAFORMA**

**ANTENARIK EZ GASTEIZ**

**GASTEIKOAUZO ELKARTEAK / ASOCIACIONES VECINALES DE GASTEIZ**

**ANTENARIK EZ DONOTIA**

**ANTENARIK EZ PASAIA**

**ANTENA NO GETXO**

**ACACEM/ EEKEE**

**PLATAFORMA AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ NAFARROA**

**FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES VECINALES DE BILBAO  
INGURUGIRO ARLOA BILBOKO AUZO EELKARTEEN**

**EZPITSUA**

**EGUZKI**

**EKOLOGISTAK MARTXAN**